

**2008ko URTARRILAREN 17ko UDALBATZARRA
PLENO DE 17 DE ENERO DE 2008**

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M^a SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU (oporrak/vacaciones)

Tokia: BERAko Herriko Etxea.

Eguna: 2008-01-17

Ordua: 20:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 17-01-2008

Hora: 20:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2007ko abenduaren 20an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2007, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- HERRIAREN IZEN OFIZIALA ALDATZEA: BERA.-

2.- CAMBIO DENOMINACIÓN OFICIAL MUNICIPIO: BERA.-

Bozketa egin da, hauxe izan da emaitza:

Aldeko botoak: 8 (2 Aralar, 2 EAJ-PNV, 4 EAE-ANV).

Abstentzio: 2 (EA)

Aurkako botoak: 0.

Se lleva a cabo la votación y resulta:

Votos a favor: 8 (2 Aralar, 2 EAJ-PNV, 4 EAE-ANV)

Abstenciones: 2 (EA)

Votos en contra: 0.

Beraz, legeak eskatutako gehiengo osoz ONARTU DA:

Ikusirik, herriaren izen ofiziala aldatzeko espedientea, BERA izatekoa.

1979. urtean Euskaltzaindiak herriaren euskal izena BERA zela plazaratu zuen.

Geroztik, 18/1986 Euskararen Foru Legearen agindua betetzearren, Nafarroako Gobernua Euskaltzaindiari hala eskatutak Akademiak, aurreko erabaki berretsi eta Nafarroako Gobernuari jakinarazi zion.

Erabaki horiek hartzeko, Euskaltzaindia, ohi den bezala, agiri eta herri ebakeran oinarritu zen.

Ikusirik, Euskaltzaindiak gai honi buruz eginiko txostena, 2006ko urriaren 2koa.

2007ko urriaren 18an Udalak eginiko Plenoan herriaren izena aldatzeko eta izen ofiziala BERA izateko espedienteari hasiera ematea eta hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Irargarki Taulan aurrez aurreko iragarkia jarrita, erabaki zuen.

Aipatu jendaurreko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori dela eta, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 22. eta 25. artikuluari jarraikiz.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DA:

1) Herriaren izen ofiziala BERA/VERA DE BIDASOA orain dena aldatzea eta BERA izen ofiziala izateko aldaketa onartzea.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuari bidaltzea BERA herriaren izendapen ofiziala

Por lo que, por mayoría absoluta exigida legalmente, SE APRUEBA:

Visto expediente sobre modificación de la denominación oficial del municipio para que ésta sea BERA.

En 1979 Euskaltzaindia hizo público que el nombre vasco del municipio era BERA.

Posteriormente, en cumplimiento de la Ley Foral 18/1986 del Vascongado, a petición del Gobierno de Navarra, Euskaltzaindia se ratificó en el acuerdo anterior y así le fue comunicado el Gobierno de Navarra.

Para la adopción de dichos acuerdos Euskaltzaindia, como acostumbra, se basó en documentos y transmisiones orales.

Visto informe emitido por Euskaltzaindia sobre este asunto de fecha 2 de octubre de 2006.

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 18 de octubre de 2007 acordó iniciar el expediente de cambio de denominación del Municipio, de modo que el nombre oficial fuera BERA y su exposición pública durante el plazo de un mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios Municipal.

En el citado plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Por ello y de acuerdo con lo establecido en los artículos 22 y 25 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Por la mayoría absoluta, exigida legalmente, SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación de la denominación oficial del municipio actual de BERA/VERA DE BIDASOA y que la misma pase a ser BERA.

2) Remitir este acuerdo junto con el expediente al Gobierno de Navarra para que

onar dezan.

apruebe la denominación oficial de BERA.

3.- LEGE ANTITERRORISTAREN AURKAKO MOZIOA: BERAKO EAE-ANV.

3.- MOCIÓN CONTRA LA LEY ANTITERRORISTA: EAE-ANV DE BERA.

Aho batez ONARTU DA:

Por unanimidad, SE APRUEBA:

LEGE ANTITERRORISTAREN AURKAKO MOZIOA

Joan den urtarrilaren 6an, igande eguerdian, Mattin eta Igor bi Lesakako herrikide hauek Guardia Zibilak atxilotu eta inkomunikatu zituen lege antiterroristapean. Honen ondorioz, sumario sekretupean dago eta hori dela eta, ez zaigu inolako informazio ofizialik eman. Esku artean dugun informazio guztia hedabideek emanikoa da. Salagarria da komunikabide nagusien jarrera epaiketa mediatiko bat egiten ari baitira, errugabetasun printzipioa urratuz.

Igande gauean hiru etxe miatu zituzten Lesakan eta tentsio une batzuk ere bizitu ziren herrian. Astelehen goizean berriz, Igor Donostiako ospitaleko zaintza larrietarako zerbitzura eramana izan zen. Txosten medikuak dioenez bere osasun egoera larria da. Igorrek berak medikuei adierazi bezala jasandako kolpeengatik. Mattinen berri azken orduetan espainiar estatuko ordezkariak diotenarengatik dugu.

Datu guzti hauek garbi adierazten dute torturaren erabilera atxiloketa hauetan. Indefentsio egoera batean, hau da berme juridikorik gabekoan, aurkitzen dira bi herrikide hauek, inkomunikazioak ahalbideratzen duen egoeran hain zuzen.

Bada garaia, aski da! Errateko. Justizian oinarritzen den jendarte batek ezin du onartu torturaren erabilera eta honen desagerpenerako neurri sendoak hartu behar ditu. Honen aitzinean Berako Udalbatzak ondoko erabaki hauek hartzen ditu:

1. Une zail hauetan, gure elkartasuna agertzen diegu Igor Portu eta Mattin Sarasola gazte lesakareei eta euren senitarteko eta lagunei.
2. Atxilotutakoen errugabetasun presuntzioa bermatua izan dadila eskatzen dugu.
3. Salatu egiten dugu euren etxebizitzien miaketak lekukorik gabe egin izana, miaketa horietan zehar familiek jasandako tratu eskasa, eta inolako informaziorik eman ez izana.
4. Gogor eta argi salatzen dugu Igor Portu Juanenak Guardia Zibilaren eskutik jasandako tratua, horien ondorioz Donostiako Ospitaleko UCI-ra eraman behar izan dutelarik. Hala, agerikoa da Estatuko Indar Polizialek atxilotuen eskubideak errespetatu ez dituztela, eta inkomunikazioaren funtsa bakarra urraketa hauei bide ematea eta zigorrik gabe burutzeko espazioak sortzea dela. Beraz, berriz ere inkomunikazioaren deusezteka eskatzen dugu.
5. Gertatutakoa kontutan hartuz, Mattin Sarasola beste gazte lesakarraren osasun egoerari buruz gure kezka adierazten dugu, eta lehenbailehen bere senitartekoei informazioa ematea exijitzen dugu.
6. Atxiloturik dituzten bitartean inkomunikazioa altxatu eta giza eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzen dugu. Amnistia Internazionalen onartutako protokoloa aplikatu, eta polizia

aitzineko deklarazioak konfiantzazko abokatu batekin egin ahal izatea eta grabatuak izatea eskatzen dugu. Torturak eta tratu txarrak saihesteko neurri guztiak bermatu daitezela exijitzen dugu.

7. Atxilotuen senitarteko eta lagunekin harremanetan jartzea atxilotetaren ondorioei aurre egiteko udalak egin dezakeen guztia egin dezan.
8. Akordio honen berri komunikabideei eta herritarrei ohiko bideetatik ematea.

4.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen ganean gelditu dira:

- 1) **Bandoak: 26/2007tik 28/2007ra eta 1/2008tik 2/2008ra.**
- 2) **Ebazpenak: 2007ko abenduaren 14ko 269. ebazpenetik 2007ko abenduaren 28ko 283.era arte eta 2008ko urtarrilaren 2ko 1. ebazpenetik 2008ko urtarrilaren 9ko 4.era arte.**

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua bete izanik, honako gai hauek tratatu dira:

5.- CEDERNA-GARALUR ELKARTEA TOKIKO EKINTZA TALDEAN ETA HORRI DAGOKION GARAPEN PROGRAMAN PARTE HARTZEA.

"Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 Landa Garapenerako Programaren 4 ardatzaren (LEADER) barnean, zure Udalak 'CEDERNA-GARALUR Elkarte' Tokiko Ekintza Taldean eta horri dagokion Garapen Programan parte hartzea" puntuaren inguruan, aho batez, ERABAKI DA:

LEHENA.- CEDERNA-GARALUR Elkar-teak aurkeztuko duen Garapen Programaren jarduera-lurraldearen barnean Udala hau Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak egindako deialdiaren barnean

4.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

- 1) Bandos: del 26/2007 al 28/2007 y del 1/2008 al 2/2008.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 269 de 14 de diciembre de 2007 a la nº 283 de 28 de diciembre de 2007 y de la resolución nº 1 de 2 de enero de 2008 a la nº 4 de 9 de enero de 2008.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:

5.- PARTICIPACIÓN EN EL GRUPO DE ACCIÓN LOCAL DE LA ASOCIACIÓN CEDERNA GARALUR Y SU CORRESPONDIENTE PROGRAMA DE DESARROLLO.

En relación al punto relativo a la **participación del Municipio en el Grupo de Acción Local Asociación CEDERNA-GARALUR y su correspondiente Programa de Desarrollo**, en el marco del eje 4 (LEADER) del Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Foral de Navarra 2007-2013, por unanimidad, SE ACUERDA:

PRIMERO.- Manifestar haber sido debidamente informado de la inclusión de este Municipio en el territorio de actuación del Programa de Desarrollo a presentar por la Asociación CEDERNA-GARALUR como candidatura en

hautagai gisa sartzearen inguruan behar bezala informatua izan dela. Aipatu deialdiak Toki Ekintzako Taldeak aukeratzeko oinarriak finkatzen ditu, Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 Landa Garapenerako Programaren 4 ardatzaren (LEADER) barnean.

BIGARRENA.- Udala "CEDERNA-GARALUR Elkarte" Tokiko Ekintza Taldearen Garapen Programaren jarduera-lurraldera soilik eta bakarrik atxikitzea.

HIRUGARRENA.- Udal honek elkartekide bezala "CEDERNA-GARALUR Elkarte" Tokiko Ekintza Taldean soilik eta bakarrik parte hartzea.

LAUGARRENA.- Udal honetako alkate jauna gaitzea, udal honen izenean, akordio honen ondorioz sinatu beharreko dokumentu guztiak sina ditzan "CEDERNA-GARALUR Elkarte" Tokiko Ekintza Taldearekin.

6.- "MENDEKO PERTSONAK ZAINTZEKO" ENPLEGU TAILERRA BURUTZEKO CEDERNA-GARALURREKIN KOLABORATZEKO ERABAKIA.

Ikusirik, CEDERNA-GARALURrek Mendeko pertsonak zaintzeko enplegu tailerra burutzeko aurkeztu duen kolaboratzeko erabakiaren proposamena.

Aho batez, ERABAKI DA:

1) Aipatu den enplegu tailerra burutzeko CEDERNA-GARALUR-rek aurkeztu duen kolaboratzeko erabakia onestea eta sinatzea.

el marco de la convocatoria formulada por la Consejera de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, por la que se establecen las bases para la selección de los Grupos de Acción Local y sus correspondientes programas de desarrollo en el marco del eje 4 (LEADER) del Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Foral de Navarra 2007-2013.

SEGUNDO.- Apoyar la adscripción de su Municipio, única y exclusivamente en el territorio de actuación del Programa de Desarrollo del Grupo de Acción Local Asociación CEDERNA-GARALUR.

TERCERO.- Participar este Ayuntamiento como asociado, única y exclusivamente en el Grupo de Acción Local Asociación CEDERNA-GARALUR.

CUARTO.- Facultar al Sr. Alcalde para que, en nombre de este Ayuntamiento, suscriba con el Grupo de Acción Local Asociación CEDERNA-GARALUR cuantos documentos se deriven de la ejecución de este acuerdo.

6.- ACUERDO DE COLABORACIÓN CON CEDERNA-GARALUR PARA REALIZACIÓN DE TALLER DE EMPLEO DE ATENCIÓN A PERSONAS DEPENDIENTES.

Vista propuesta de acuerdo de colaboración presentado por CEDERNA-GARALUR para la realización del taller de empleo de atención a personas dependientes.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1) Aprobar y firmar el acuerdo de colaboración presentado por CEDERNA-GARALUR para la realización del taller de empleo antes citado.

2) Interesatuari erabaki hau bidaltzea.

2) Trasladar el presente acuerdo a la interesada

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:00etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:00 horas.

**O.E. ALKATEA,
V.B. EL ALCALDE**